Bestelako Xedapenak

OSASUN ETA KONTSUMO SAILA

5507

EBAZPENA, 2009ko irailaren 18koa, Farmaziako zuzendariarena, M.ª Inés Garate Mendizabal andreari Vitoria-Gasteizko udalerrian (Araba) farmazia-bulego bat sortzeko baimena ematen diona.

Vitoria-Gasteizko udalerrian (Araba) farmazia-bulego bat sortzeko, M.ª Inés Garate Mendizabal andreak egin duen baimen-eskaera aztertu da. Hauek dira oinarriak:

GERTAKARIAK

Lehenengoa.– Osasuneko sailburuaren 2008ko maiatzaren 23ko Aginduaren bidez, Vitoria-Gasteizko farmazia-eremuan farmazia-bulego bat sortzea bidezkoa zela erabaki zen.

Bigarrena.– Osasuneko sailburuaren 2008ko azaroaren 7ko Agindu bidez aipatutako farmazia-bulegoa sortzeko prozedurari hasiera eman zitzaiola iragarri zen.

Hirugarrena.– Farmazia horren titulartasuna eskuratzeko merezimenduak balioesteko batzordeko kideak izendatu eta egokitzen ziren legezko izapideak egin ondoren, batzordeak 2009ko apirilaren 23an hartutako erabaki batez lehiakideen behin betiko zerrenda onartu zen, lehentasun eta puntuazioaren hurrenkerari jarraituz, eta 2009ko maiatzaren 19ko EHAAn, 93. zenbakian, argitaratu zen.

Laugarrena.– Aipatutako erabakiaren aurka ez zen errekurtsorik aurkeztu.

Bosgarrena.– 2009ko ekainaren 23an ofizioa bidali zion Farmaziako zuzendariak M.ª Ines Garate Mendizabal andreari. Ofizioan adierazi zitzaion berak lortu zuela puntuaziorik handiena alegatutako merezimenduak balioesterakoan eta, hortaz, 338/1995 Dekretuak, Farmaziak sortu, lekuz aldatu, itxi eta jardunean jartzeko prozedurak arautzen dituenak, 5. artikuluan xedatutakoarekin bat jokatu beharko zuela. Ohartarazi zitzaion deialdian parte hartzen jarraitzeari uko egiten ziola ulertuko zela, eskatutako agiriak dekretu horretan ezarritako epean aurkeztu ezean.

Seigarrena.– 2009ko abuztuaren 12an, M.ª Inés Garate Mendizabal andreak Vitoria-Gasteizko udalerrian farmazia-bulego bat sortzeko baimenaren eskaera aurkeztu zuen, 338/1995 Dekretuaren babesean, eta dekretu horretako 5. artikuluan ezarritako agiriak ere erantsi zituen.

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE SANIDAD Y CONSUMO

5507

RESOLUCIÓN de 18 de septiembre de 2009, de la Directora de Farmacia, por la que se concede a Dña. M.ª Inés Garate Mendizabal autorización de creación de oficina de farmacia en el municipio de Vitoria-Gasteiz (Álava).

Vista la solicitud presentada por Dña. M.ª Inés Garate Mendizabal, de autorización de creación de oficina de farmacia en el municipio de Vitoria-Gasteiz (Álava), y sobre la base de los siguientes

HECHOS

Primero.– Mediante Orden de 23 de mayo de 2008, del Consejero de Sanidad, se determinó la procedencia de la instalación de una oficina de farmacia en la zona farmacéutica Vitoria-Gasteiz.

Segundo.– Mediante Orden de 7 de noviembre de 2008, del Consejero de Sanidad, se anunció el inicio del procedimiento para la creación de la citada oficina de farmacia.

Tercero.– Nombrados los miembros de la Comisión de Valoración de Méritos para el acceso a la titularidad de la reseñada oficina de farmacia y, previos los oportunos trámites legales, ésta adoptó el Acuerdo de 23 de abril de 2009 por el que se aprobó la lista definitiva de concursantes admitidos y su clasificación por orden de puntuación que fue publicada en el BOPV n.º 93, de 19 de mayo de 2009.

Cuarto.– Contra el citado Acuerdo no se interpuso recurso alguno.

Quinto.– Con fecha de 23 de junio de 2009, se remitió oficio de la Directora de Farmacia a Dña. M.ª Inés Garate Mendizabal donde se señaló que, siendo la concursante que mayor puntuación obtuvo en la valoración de los méritos alegados, debía proceder de conformidad con lo dispuesto en el artículo 5 del Decreto 338/1995, de 27 de junio, por el que se regulan los procedimientos de creación, traslado, cierre y funcionamiento de las oficinas de farmacia, con advertencia de que, transcurrido el plazo establecido en el citado precepto sin que aportara la documentación requerida, se entendería que renuncia a seguir participando en la convocatoria.

Sexto.– Con fecha 12 de agosto de 2009, Dña. M.ª Inés Garate Mendizabal presentó solicitud de autorización de creación de oficina de farmacia en el municipio de Vitoria-Gasteiz, al amparo del Decreto 338/1995, adjuntando la documentación prevista en el artículo 5 del mencionado Decreto.

Aurkeztutako agirietan ikusten denez, farmazia-bulego berria helbide honetan dagoen lokalean jarri nahi da: Sofia Erreginaren hiribidean, 27. zenbakian, Vitoria-Gasteizko farmazia-eremuko 1.1.12 osasun-eremuan.

Zazpigarrena.– Farmaziako zuzendariak 2009ko abuztuaren 20an agiri ofizial bana bidali zien espediente honetan interesa zuten guztiei, batetik, espedientean pertsonatzeko, eta bestetik, egoki iritzitako alegazio guztiak aurkezteko. Hala egin zen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 76. eta 79.1. artikuluetan ezarritakoari jarraituz (Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legea).

Zortzigarrena.– Azkenik, Farmazia-arloa antolatzeko buruak, 2009ko irailaren 17an, aldeko txostena egin zuen M.ª Inés Garate Mendizabal andreak aurkeztutako agiriei buruz.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Lehenengoa.– Farmaziako zuzendariak dauka honako espediente honi buruz ebazpena emateko eskumena, halaxe ezarrita baitago Euskal Autonomia Erkidegoko Farmazia-antolamenduko ekainaren 17ko 11/1994 Legearen 34. artikuluan, eta, xedapen horri lotuta, Osasun Sailaren egitura organikoa eta estrukturala ezartzen duen azaroaren 6ko 268/2001 Dekretuaren 14. artikuluan.

Bigarrena.– Batetik, aurkeztu diren merezimenduak balioetsita, M.ª Inés Garate Mendizabal andreak izan du puntuaziorik handiena; bestetik, farmaziak sortzeko ezarritako prozedurari dagokionez, 11/1994 Legearen 34. artikuluan ezarritako eta 338/1995 Dekretuan garatutako xedapenak bete dira; azkenik, dekretu horren 5. artikuluaren arabera, lehiakideak agiri guztiak eta eskatutako epean aurkeztu dituela egiaztatu da. Horrenbestez, bidezkoa da interesdunari farmazia-bulegoa jartzeko baimena ematea.

Dena dela, jardun ahal izateko baimena lortu beharko da, emandako baimenak indarra izango badu; hala ezartzen da 338/1995 Dekretuaren 6. artikuluko 4. paragrafoan.

Horiek horrela, hau

EBATZI DUT:

Lehenengoa.– M.ª Inés Garate Mendizabal andreari farmazia-bulegoa sortzeko baimena ematea, Vitoria-Gasteizko udalerrian (Araba), Sofia Erreginaren hiribideko 27. zenbakian, farmazia-bulegoa jar dezan; betiere, berak aurkeztutako agiriak aintzat hartuta.

Bigarrena.– Baimen honek indarra izan dezan, M.ª Inés Garate Mendizabal andreak jardunean jartzeko behar den baimena lortu beharko du. Baimen hori eskatzeko lau hilabeteko epea izango du, honako ebazpen hau EHAAn argitaratu eta hurrengo egunetik

De la documentación aportada, cabe apreciar que el emplazamiento del local donde se pretende la instalación de la nueva oficina de farmacia es en el n.º 27 de la Avenida Reina Sofía, zona de salud 1.1.12 de la zona farmacéutica Vitoria-Gasteiz.

Séptimo.– De conformidad con el artículo 76 y 79.1 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, el día 20 de agosto de 2009, por oficio de la Directora de Farmacia, se da traslado a los posibles interesados en el expediente para que se personen en el mismo y formulen las alegaciones que estimen convenientes.

Octavo.– Finalmente, el Jefe de Ordenación Farmacéutica con fecha 17 de septiembre de 2009, emite informe favorable sobre la documentación aportada al efecto por Dña. M.ª Inés Garate Mendizabal.

FUNDAMENTOS DE DERECHO

Primero.– De acuerdo con lo señalado en el artículo 34 de la Ley 11/1994, de 17 de junio, de Ordenación Farmacéutica de la Comunidad Autónoma del País Vasco, en relación con el 14 del Decreto 268/2001, de 6 de noviembre, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Sanidad, compete la resolución del presente expediente a la Directora de Farmacia.

Segundo.– Siendo, Dña. M.ª Inés Garate Mendizabal, la concursante que mayor puntuación obtuvo en la valoración de los méritos alegados, cumplidas las previsiones contenidas en el artículo 34 de la Ley 11/1994 y desarrolladas en el Decreto 338/1995, en relación con el procedimiento establecido para la creación de oficinas de farmacia y comprobada la adecuación de la documentación aportada y el plazo de su entrega a lo dispuesto en el artículo 5 del citado Decreto, procede conceder la autorización de creación de la oficina de farmacia a la interesada.

Ahora bien, conforme a la previsión establecida en el artículo 6, apartado 4, del Decreto 338/1995, la autorización concedida quedará condicionada a la obtención de la autorización de funcionamiento.

Por todo ello,

RESUELVO:

Primero.– Conceder la autorización de creación de oficina de farmacia a ubicar en la Avenida Reina Sofía, 27 del municipio de Vitoria-Gasteiz (Álava) a Dña. M.ª Inés Garate Mendizabal, de acuerdo con la documentación por ella presentada.

Segundo.– Esta autorización queda condicionada a la obtención por parte de Dña. M.ª Inés Garate Mendizabal de la correspondiente autorización de funcionamiento, que deberá solicitarse en el plazo de cuatro meses a contar desde el día siguiente al de

hasita, eta betiere, 338/1995 Dekretuaren 7. artikuluan ezarritakoari jarraituz.

Hirugarrena.– Ebazpen hau interesdunei jakinarazi, eta aditzera eman ebazpen honek ez duela administrazio-bidea amaitzen eta, horren aurka, gora jotzeko errekurtsoa edo bidezko jotako beste edozein aurkez diezaioketela zuzendaritza honi edo Osasuneko sailburuordeari. Hilabeteko epea emango zaie, jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2009ko irailaren 18a.

Farmaziako zuzendaria,
SOLEDAD PALOMA ACEVEDO HERANZ.

la publicación de la presente resolución en el BOPV, y de conformidad con lo previsto en el artículo 7 del Decreto 338/1995.

Tercero.– Notifíquese a los interesados la presente resolución, con indicación de que no agota la vía administrativa y que contra ella podrán interponer recurso de alzada ante esta Dirección o ante el Viceconsejero de Sanidad, en el plazo de un mes a partir del día siguiente a su notificación, así como cualquier otro que estimen oportuno.

En Vitoria-Gasteiz, a 18 de septiembre de 2009.

La Directora de Farmacia,
SOLEDAD PALOMA ACEVEDO HERANZ.